

Mahai ingurua:
Gaurko hiztegitzaren premiak eta arazoak

1

Antton Gurrutxaga

Elhuyar

EUSKAL HIZTEGIGINTZA AZKEN 25 URTEOTAN: IRITZI OROKORRA

Azken 25 urteotan, lan handia egin da euskal lexikoaren alorrean, euskara batuan eta, beraz, euskararen normalizazio eta etorkizunean lexikoak duen garrantziaren seinale. Gure ustez, aurrerapen nabarmenak egin dira alor honetan. Lehenik eta behin, euskal tradizio idatziaren bilduma egin da eta, hori landuz, *Orotariko Euskal Hiztegia* argitaratu ahal izan da (argitalpena erabat amaiturik ez dagoen arren). Bilduma horri esker, ondare lexikal historikoaren datuak eskuratu ditu Euskaltzaindiak eta euskara baturako erabakiak hartzeko irizpide fidagarriak eta sendoak ezarri ahal izan ditu. Bestetik, euskara batuaren sorreratik beretik euskara batua bultzatu nahi izan duten hiztegiak argitaratu dira. Izan ere, euskaldunak ez dira Euskaltzaindiak lexiko batua finkatu zain egon lexiko baturantz abiatzeko ahaleginak egiteko, ezta euskara eremu berrietan erabiltzeko ere. Hiztegiok, lexikografikoek (euskara--hiztegiek eta hiztegi elebidunek) zein terminologikoek, asmo nagusi bat izan dute: euskara lexikoaren alorreko tresnez hornitzea (baturanzko grafiak, hitz berriak, adiera berriak, termino berriak, ondare lexikaleko hitz galduxeak berreskuratzea eta abar proposatuz). Zorionez, mende honetako euskal testuen corpus estatistikoa ere egin da (EEBS), eta, horri esker, mende honetako testuetan eta, bereziki, euskara batuaren sorreraz gero hainbeste ugaritu diren euskarazko testuetan erabilitako lexikoaren datuak eskura ditugu. Horiek guztiak horrela eta, esan liteke euskal lexikoa, historikoa zein gaur egungoa, orain dela hogeita bost urte baino askoz hobeto ezagutzen dugula. Horren emaitzak ere hasi gara jasotzen eta, denetan nagusia, ezbairik gabe, argitaratu berria den Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* dugu. Gure ustez, *Hiztegi Batua* benetako mugarria da euskararen historian eta ezin eskertuzko tresna dugu euskaldunok euskararen normalizazioan aurrera egiteko.

Beste emaitza nabarmengarri bat Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegia* dugu, *Orotariko Euskal Hiztegia* egiteko erabilitako corpus beretik moldatua eta, lexikografia-ereduan ez ezik, euskarazko definizioak moldatzeko ereduan ere ekarri handia egin duena.

Hain zuzen ere, euskarazko definizioez osatutako euskara-hiztegiak argitaratu izana da euskal lexikografiaren azken urteotako lorpen handienetakoa: hizkuntz hiztegiak, sinonimo-hiztegiak, hiztegi entziklopedikoak, hiztegi teknikoak... Garai batean, euskaldunak euskara--erdara hiztegietara jo behar zuen, ezinbestean, ezagutzen ez zuen euskal hitz baten esanahia jakiteko. Esan liteke euskal hiztegiak exozentrikoak zirela, ez zirela bere baitakoak. Hitzunak bere hizkuntzako hitz eta esapideen esanahiri buruzko informazioa hizkuntza horretan berean bereganatzeak berebiziko garrantzia du. Euskarazko unibertsoa euskarazko esanahiez osatzen da lehenik eta, horiekin batera, elkarkide, gainerako hizkuntzetako ordainak egoten dira, kulturaren osagarri eta adierazgarri. Hala ere, euskara-hiztegiak elebidunak baino gutxiago erabiltzen dira oraindik ere (salmentek hori erakusten dute, behintzat).

Beste aurrerapen nabarmen bat hiztegi elebidunetan gertatu da. Bi arrazoiengatik: hiztegien kalitatea hobetu delako eta hizkuntza-eskaintza handiagoa dagoelako: gaztelania, frantsesa, ingelesa, errusiera, alemana...

Azkenik, merkatuan dagoen hiztegi-eskaintza ere orain dela hogeita bost urte baino askoz handiagoa da eta, gure iritziz, hori ona da. Egia da batzuetan zalantzak plazaratu izan direla hiztegi-ugaritasunari buruz, euskaldunok mota bakoitzeko 'hiztegi bat' aski edo, areago, hobe genukeela esanez. Gure ustez, erabiltzaileak merkatuan aukera bat baino gehiago izatea ez da inolaz ere kezagarria, pozgarria eta onuragarria baizik, gure hizkuntza heldutasunerantz eta normalizaziorantz doan seinale dena.

ZER DAGO EGITEKO? ZEIN DIRA EUSKAL HIZTEGIGINTZAREN PREMIAK EPE ERDIAN ETA LUZEAN?

Ez dugu uste inork zalantza egingo lukeenik Hiztegi Batuaren 2. itzulia amaitzeak berebiziko garrantzia duela esaten badugu. Euskaltzaindiak berak esan du Hiztegi Batu osoak "eguneroko bizitzan behar ditugun hitzak bilduko dituela". Ez da asmo makala, ez horixe. Araua ematen dutenen eta euskalgintzako profesionalen, erakundeen, taldeen, etab.en arteko informazio-trukearen eta elkarlanaren beharra dago eta badakigu Euskaltzaindia horretaz jabeturik dagoela. Behar horren arrazoa da erabakiek gaur egun nagusi diren edo nagusitzear dauden erabilera errealetan (baldin badaude) ahalik eta nahasmen eta distortsio txikiena eragitea (erabiltzen den eta baliabideak sortzen dituen hizkuntza ari gara arautzen eta normalizatzen; ez gara objektu geldo eta abstraktu batez ari).

Bestetik, lexiko teknikoa edo terminologiaren alorrean erreferentzia-gunearen beharra dagoela uste dugu. Euskaltzaindiaren babesa izango lukeen erakunderen edo erakunde-multzoren bat behar litzateke. Alor honetan, elkarlana inoiz eta inon baino beharrezkoagoa da, ez terminologia sortzeko bereziki, sortzen dena nolabait 'normalizatze'ko, eta Euskal Herri osoko hedadura eta partaideak eduki behar litzuzke (ez dugu esan nahi horren 'gomendioek' Euskaltzaindiaren arauen maila bereko estatusa eduki behar luketenik).

Ahalegin horiek denak hiztegi-gintza arautzailearen alorrekoak dira. Izan ere, bada gaur egungo euskal hiztegi-gintzak duten ezaugarri aipagarri bat: 'eredua' jasotzen dute eta hori zabaltzen saiatzen dira. Hitz gutxitan, gaur egungo euskara 'errea-

la', 'bizia' (hau da, bizidunek erabiltzen dutena) osorik behintzat jasotzen ez duen hiztegitzaren da gurea. *Orotariko Euskal Hiztegia*-n tradizio idatziaren datuak jaso dira. Eta gaur egungo euskararen 'datuak', hau da, hitzak, adierak, kategoriak, esapideak eta abar? Lexikografiaren ikuspegi deskribatzailea ez zaio egungo erabilerari aplikatzen, edo iragazi egiten da, are gehiago 'eguneroko lexikoaren' alorrean. Zergatik? Gaur egungo euskararen, bereiziki ahozkoaren elementu askok ez digutelako balio, edo, zehatzago esanda, onargarri izan daitekeen euskara batu eta estandarerako ez dutelako balio. Nork esana da hori? Euskaltzaindiak berak, euskal hitza zer den eta zer ez den zehazten duen erabakian:

Euskal hitzak dira euskara bizian sustraituak daudenak" (1959) eta "Euskara bizian sustraituak ez daudenak ez dira euskal hitzak, sustraitzen ez diren bitartean bederen" (1991). Hitz sustraituei igartzeko irizpideak, berriz: "hitzaren hedadura, hitzaren antzintasuna eta hitzaren erabilera idazle zaharretan". Azkenik, baldintza minimoaren irizpidea dugu: "Ez dira erabat euskal hitzak gaztelera edo frantsesa jakin gabe euskaldun batek ezin adi ditzakeenak,....

Baina ez dugu arau hori aginpidea duen erakunde batek 'kanpotik' ezarri digun zerbait denik pentsatu behar. Guk behinik behin ez dugu horrela ikusten. Neurri handian, euskaldun orenen gogoan bizirik dago ikusmolde edo 'sentimendu' hori. Batzuek gutxiago edo beste batzuek gehiago, denok sentitzen dugu maiz erabiltzen ditugun hitz asko eta asko ez direla 'onargarriak'. Euskaldun batek 'halakoa euskaraz nola esaten da?' galdetzen duenean (egia esanda, 'nola esan behar da?' litzateke galdera zehatza, eta hainbatek halaxe galdetzen du, normalean, euskaraz bizi den pertsona bada behintzat, ederki jakiten duelako nola esaten den), erantzuleak normalean erabiltzen den halako mailegu gordina dela esaten badio, 'baina hori erdaraz da!' esango du seguru aski; eremuan onargarri izan litekeen hitz berria aipatuz gero, berriz, 'hori ez du inork esaten eta!' izan daiteke haren erreakzioa. Kontraesan hori dugu, eta ez gara horretan oso arraroak.

Hitz berriak behar ditugu, beraz, Euskaltzaindiaren 'baldintza minimoa' betekoa duten hitzak, hain zuzen ere. Azken 25 urteotako hiztegiaren proposamen berri asko daude, batzuk Euskaltzaindiak berak eginak, beste batzuk hiztegitzaren bere sortuak. Lexikografoak badaki proposamen berriak 'fikzio' direla (adibidez, 'bizkar-zorro'), baina konfiantza du fikziotik errealitatera salto egingo dutela noizbait. Jakin badakigu batzuek arrakasta izaten dutela, lehenik euskara idatzian betiere; baina beste batzuek ez, orain arte ez behintzat, eta aspaldi eginak dira. Hala ere, ikuspegi deskribatzailearen eta arautzailearen artean harrapaturik, lexikografoak bere buruari galde-tzen dio konfiantza hori 'noiz artekoa' izan daitekeen, zenbat denbora 'itxoin' dezakegun hitz jakin bat erabileran txertatu arte (edo noiz arte saia gaitzkeen hitz jakin bat 'biziarazten'). Mikel Zalbideren hitzak gogoratuz, hiztegitzaren arautzailea ez da amaitzen hitzak hiztegiaren sartzen direnean, hiztunak hitzok bere egiten dituenean eta erabiltzen dituenean baizik. Hori lortu ezean, hitz berria hilda dago, ez du ezertarako balio. Izan ere, hizkuntzak ezin du jasan hiztegiaren ereduaren eta erabilera errealaren arteko aldea denboran mugarik gabe irautea. Zenbat denbora beraz? Orain ezin erantzun dezakegun galdera da, normalizazio-prozesuan ari gara, baina zentzuzkoa da muga bat egongo dela aurreikustea.

Proposamen berrien arrakasta neurtu egin behar da. Horretarako, erabilerari buruzko datuak jaso behar dira. Hau da, corpusak osatu eta aztertu beharko dira. Eta

ez idatzizko erabilerari buruzkoak soilik. Izan ere, proposamen berriak ezartzeko aukera ez da bera batez ere idatziz erabiltzen bada eta batez ere ahoz erabiltzen bada. Erabilera zaindua askoz errazagoa da idatzizko erregistroetan ezartzen. *Ingurugiro* baztertu eta *ingurumen* ezartzea errazagoa da *motxila* baztertu eta *bizkar-zorro* ezartzea baino. Nolanahi ere, kontua da proposamen berrion segimendua egin behar dela. Dударik ez, Euskaltzaindia da, datuok aztertuta, proposamen berrien 'arrakasta' neurtu eta dagozkion erabakiak hartzeko erakundea. Denboraren poderioan, arrakasta duten hitzak erabileran parte izango direlako, eta arrakasta izan ez dutenak baztertu eta benetan erabiltzen direnak onartzeko lasaitasuna izango dugulako, gure hiztegi-gintza, apurka-apurka, deskribatzaileagoa izango da (ez erabat, ez dago guztiz deskribatzailea den hiztegirik) eta harrotasunez esan ahal izango dugu gure hiztegiek euskaldunok erabiltzen duten lexikoa jasotzen dutela. Hala izan bedi.

2

Patxi Uribarren Bostak Bat *lantaldea*

1. NORBERAREN TALDEAREN LANA

BOSTAK BAT LANTALDEA Bizkaian kokatuta lanean diharduen hizkuntzalari eta itzultzailez hornitutako kultur taldea duzue. Hurrengo sei pertsonok gara taldekide: Gotzon Aurrekoetxea (Euskal Filologian Doktorea eta UPV-EHU-ko irakaslea); Ricardo Badiola (hizkuntzalaritzan lizentziaduna eta Euskaltzaindiko argitalpen eragile); Luis Baraiazarra (Euskal Filologian lizentziaduna eta Euskaltzaindiko Hiztegi-gintza eta Gramatika batzordeetako kidea); Juan Luis Goikoetxea (Didaktikan Doktorea eta institutuko katedraduna); Txomin Solabarrieta (Bizkaiko Gotzaindegiko itzultzaile-ohia) eta Patxi Uribarren (hizkuntzalaritzan lizentziaduna eta Bizkaiko Diputazioko itzultzailea).

Gure lantaldea, zientzia-arlo desberdinetako kolaboratzaile multzo handi batekin inguratu da. Horrela lankide izan ditugu maila eta hiztegi desberdinetan hurrengo hauek: Martin Orbe (Euskal Filologian lizentziaduna eta Udako Euskal Unibertsitatea-UEUko zuzendari-ohia); Jose Ramon Etxebarria (fisikaria, UEUko argitarapenen zuzentzailea); Jesus M. Zalakain (itzultzailea), Jazinto Iturbe (Doktorea eta UPV-EHUko irakaslea), Kepa Altonaga (Biologian doktorea eta UPV-EHUko irakaslea); Pilare Baraiazarra (Euskal filologian lizentziatua eta Batxilergoko irakaslea); Jesus Naberan (itzultzailea); Erramun Osa (AEK-ko didaktika taldeko irakaslea); Gabriel Piedra (itzultzailea); Iñaki De Nicolas Pinto (OHoko irakaslea. Hezkuntza-Psikologian lizentziatua); Gotzon Lobera (Zuzenbidean lizentziaduna eta gaur egun Bizkaiko Diputazioko Euskararen Zuzendaria); Patxi Letamendi (medikua); Eneko Barrutia (Euskal Filologian lizentziaduna); Xarles Videgain (Université de Pau et des Pays de l'Adour-eko irakaslea); Alfonso Irigoien Etxebarria (Euskaltzain hizkuntzalaria eta Destuko katedraduna); Lino Akesolo (Euskalari-ikertzaile-hiztegi-gilea), Beñat Oihartzabal (Euskaltzaina eta Frantziako CNRSko ikertzailea); Javier Garai Errekatxo (irakasle-itzultzailea); Joseba Butron Jauregi (institutuko katedraduna), Jose Ramón Eguiluz Ugarriza (Bizkaiko Aldundiko itzultzailea); Bego Montorio Uribarren (itzultzaile-interpretaria); Jose Luis Lizundia eta Mikel Gorrotxategi (Euskaltzaindiko Onomastika batzordeko kideak).

Guztira 10 doktore irakasle, 11 lizentziatu irakasle-itzultzaile, eta beste 7 pertsona trebatu, hala nola, Lino Akesolo.

Lantaldea, hainbat urtetan Euskaltzaindiko "D" eta "B" titulazioetarako jendea prestatzeko ikastaroak antolatu eta ematen jardun ondoren, 1982. urtean hasi zen euskal hiztegi-gintza munduan lanean, une hartan hiztegi-gintzan zegoen hutsunea bete

nahiez. Ia 20 urte hauetan beti ildo berari jarraituz, eta hutsik egin barik, hiztegi sorta zabala argitaratu ditu jada.

Bostak Bat Lantaldearen sorrera planteamendu estrategiko baten ondorio izan zen: egin-eginean, euskaldunok euskaraz jarduteko hiztegi mailan ezinbestekoak genituen tresnak sortzea. Hori dela eta, talde honen hiztegi gehienak (9tik 7) euskara hutsezkoak izan dira. **ADOREZ** hiztegi sorta jarri genuen abiabidean. Gure definiziozko lehen hiztegia (Adorez 2) Kintana-Aresti jaunek *Batasunaren Kutxan* eginiko ahaleginaren ondoren, euskarazko definiziozko lehen hiztegia izan zen.

Hiztegi elebidun biak, ostera, urte luze horietan bilduta ikerlan ugarien emaitza izan dira. Hain zuzen ere, 1986an *Euskarako Hiztegia* (Adorez 2) kaleratzean hiztegi horri erantsi genion eranskina osotu, eta aparteko hiztegi bezala prestatzearen ondorioa.

Argitalpenak hiru bertsio desberdinetan egin ditugu: liburu formatoan, CD-ROM-ean eta Internet bertsioan.

2.1. *Liburu formatoan:*

Elebakarrak

1) Sinonimoen hiztegiak (euskarazko lehenak):

- 1983, *Sinonimoen Hiztegia*, Adorez 1. (8.000 sarrera)
- 1988, *Sinonimoen Hiztegia*. Antonimoduna, Adorez 3. (17.000 sarrera)
- 1999, *Sinonimoen Hiztegia*. Antonimoduna, Adorez 8. (30.000 sarrera)

2) Definiziozko euskal hiztegiak:

- 1986, *Euskararako Hiztegia*, Adorez 2. (mota honetako lehena)
- 1990, *Euskararako Hiztegia*. Oinarritzkoa, Adorez 4.
- 1991, *Eskola Hiztegia*. irudiduna, Adorez 5. (haurrentzako berezia)
- 1993, *Europa Hiztegia*. Eskola berrirakoa, Adorez 6.

Elebidunak

- 1996, *Diccionario 3000 Hiztegia*, Adorez 7.
- 2001, *3000 Eskola Hiztegia*, Adorez 9. (argitaratu berria)

2.2. *CD-ROM formatoan*

- 1995, *Europa Hiztegia*, Adorez 6. (Honelako euskarrian eginiko lehena)
- 1996, *Diccionario 3000 Hiztegia*, Adorez 7.
- 1999, *Sinonimoen Hiztegia*. Antonimoduna, Adorez 8.
- 2001, *3000 Eskola Hiztegia*, Adorez 9.

2.3. *Internet-en**

Eusko Jaurlaritzako Web orrian:

- 1999, *Diccionario 3000 Hiztegia*, www.euskadi.net/euskara
- 1999, *Sinonimoen Hiztegia*, www.euskadi.net/euskara

Euskaltzaindia / R.A.L.V. Web orrian:

- 2001, *Diccionario 2000 Hiztegia*, www.euskaltzaindia.net
- 2001, *Sinonimoen Hiztegia*, www.euskaltzaindia.net

Kili-kili.net aldizkariaren Web orrian: (Bizkaiko Ikastolen Elkartea)

- 2001, *Diccionario 3000 Hiztegia*, www.kili-kili.net
- 2001, *Sinonimoen Hiztegia*, www.kili-kili.net
- 2001, *Europa Hiztegia*, www.kili-kili.net

*Internet-eko bertsioetan urtero bertsio berria argitaratzen da. Honetan AUR-TEN BAI fundazioarekin lankidetzan aritu izan gara.

2.- EUSKAL HIZTEGIGINTZA AZKEN 25 URTEOTAN:

Izugarritzko aurrerakada eman dela uste dut:

1) *Ikerketa arloan:*

Diccionario Retana de autoridades del euskera (Sotak hasi, Laffitek bidertatu eta Lino Akesolok burututakoa)

- Justo Mokoroaren *hortik eta hemendik Orotariko euskal hiztegia*
- UZEI-ren lan erraldoi ezkergeaitza
- Ibon Sarasoraren *Euskal hiztegia*
- Gotzon Garateren lanak
- Gaminderen bilketa-lan zabala
- Deustuko Unibertsitatean egindakoak (Legegintzan)
- Zenbait udaletan egiten ari direnak.

2) *Egokitzapen arloan:*

1. Euskara hutsezko hiztegiak:

- *Bostak Bat* lantaldearen aipaturikoak
- Eskoriatzako eskolako *Lehen hiztegia* (Xabier Mendiguren)
- *Elhuyar* Kultur elkartearenak
- EUSENOR-en *Lehen hiztegia*
- Ibon Sarasolaren *Euskal hiztegia*.

2. Hiztegi elebidunak:

2.1. Euskara-gaztelaniakoak:

- *Hiztegi moderno-Hiztegia 80-Hiztegia 2000* (lehen hiztegi moderno)
- *Bostak Bat* taldearenak (*3000 hiztegia; 3000 Eskola Hiztegia*)
- *Elhuyar*-en hiztegiak. (entziklopedikoa eta besteak)
- *Lur*-en hiztegiak (entziklopedikoa eta besteak)
- Ibon Sarasoraren *Oinarritzko hiztegia*
- X. Gereñoren hiztegiak; Patxi Altunarena: *Mundo* egunkariak zabaldua,...

2.2. Euskara-ingeles-frantses-erruso, etb...)

Era berean, Euskaltzaindiak euskara baturako hitz-zerrenda argitaratu du, hiztegiak berriztatzeko eta eguneratzeko material ederra eskainiz.

3.- EUSKAL HIZTEGIGINTZAREN PREMIAK EPE ERDIAN ETA LUZEAN

Hiztegien egitekoa hitzunik eta idazleek erabilitako hitzak jaso eta tratamendu egokia emanez jendearen esku jartzea delarik, hurrengo beharrianok ikusten ditugu.

Epe erdian: bizitzan beharrezkoak diren hitz maileguak eta eratorriak idazkera bakarria erabiliz finkatzea. Goian aipaturiko hiztegieta, kasurik gehienetan bat etorri arren, adostasun handiagoa lortu beharra dago.

Epe luzean: oraindik hainbat alorretan ikerketak egin beharra dago:

- Material kopuru izugarria dugu esku artean (*Klasikoak eta Literatura unibertsala* sortetako liburuak, Unibertsitateko testu liburuak, hezkuntza ertainekoak...); horietan ageri den lexikoa batu eta ikertu beharra dago.
- Beste hainbeste gertatzen da azken urte hauetan euskaraz idatziz argitaratu diren hainbat idazleren lanei dagokienean. Erabiltzen duten lexikoa batu eta hiztegieta ekarri beharra dago (entzuna dut UZEI zerbait egiten ari dela alor honetan).

4.- EUSKALTZAINDIAREN EGINKIZUNA EREMU HORRETAN

- 1.- Orain arteko bidetik jarraituz baturako ondarezko hitzen zerrenda hainbat arinen osotzea.
- 2.- Hiztegi Baturako maileguen zerrenda osotzea. Lan horretarako, Unibertsitate alorrean euskaraz irakasten eta euskarako testuak prestatzen ari direnekin (UEU, batez ere) harreman estuagoa izatea.
- 3.- Hitzen formaz gain Hiztegi Baturako adierak zehaztea.
- 4.- Ahozko hizkeratik Hiztegi Baturako hitzak jasotzea. Euskal Herriko zenbait udalerritan egiten ari diren hizkuntza azterketei hurbileko jarraipena egin, eta halakoak egokiro bideratzeko bideak jartzea.

Horretarako, *Euskal Herriko Hizkuntz Atlas*a egiteko batzorde bat sortu zuen bezala, lexiko alorreko ikerketak bideratzeko batzorde berezi bat eratu beharko luke:

- Gazteentzat zein gainerako ikertzaileentzat bekak lortzeko.
- Euskal Herriko eskualdetako euskara mintzatuaren berezitasunak jasotzeko.
- Orain arte herrietan egin diren ikerlanak bildu eta ondorioak ateratzeko.

Oraindik guk uste dugun baino gehiago dago jasotzeke herritarren arteko euskararen. Ezinbestekoa da lehenbailehen batzen saiatzea. Honetarako metodologia aldeetik jarraibiderik egokiena Gotzon Garatek eman digula uste dut, zenbait esamolde eta hitz ezin direlako tokian bertan bizi izan ezik jaso.

Adibidez, uda honetan neba-arreba birekin egun batzuk egiteko aukera izan dut. Beraien artean erabiltzen zuten hizkera abiabidetzat hartuz, zenbait hitz eta esamolde idaztera bultzatu nituen. Besterik beste honako hauek:

- *lehenngo hotsean* (lehenengo kolpean)
- *atzeko hotzik ez izan* (diruz ondo babestu ibili)
- *ekandu*: etxeko egin (txakurra *ekandu* egin da eta orain ezin bota)
- *sena hartu* (izateko era edo forma hartu: enborrak *sena hartu* dau)
- *triki-trikian* (trostan: astoa *triki-trikian* doa)
- *hotsean-hotsean* (behin eta berriro: *hotsean-hotsean* botaten ditu birauak)
- *matxakarra*: zaila, gogorra: *Miren matxakarra* modukoa da eta ez da nekatzen)
- *adiguria*: kontuz tratatzea: *umeak, landareak, oiloak,...* *adiguria behar dabe*)
- *borkal imini*: atxakitzat jarri: konpromisorik ez hartzeko *borkal bakea imini dabe*)
- *albainen egon* (arnas-estuka, nekatuta: *albainen* dago behia)
(Batzuk Azkueren eta Retanaren (Akesoloren) hiztegitan ere ageri dira).

Esaera aberats eta jakingarriak, ezta? Eta gu, hor ibiltzen gara, sarritan, zer berriak asmatu nahian, inguruan ditugunak ezagutzen ez ditugulako. Badugu, bada, oraindik zer jorratu!

3

Piarres Charriton

Mahaiko zaharrena naizenez geroz orain hemen nik hartuko dut hitza lehenik, nahiz ez dudan gai horretaz gauza handirik erraiteko, Euskaltzaindian baditugularik hiztegilariak, ni ez bainaiz ofiziokoa.

Dena dela, hiztegi bat egin baldin badut nik ere ELKAR argitaletxeko Jean Louis Maitia zenak eskaturik eta kasik beharturik izan da: Nafar-Lapurtar euskalkian zerbait egitera nehor ez baitzen menturatzen eta, egia erran, aspaldiko Tournier eta Lafitten *Lexique français-basque*, 1953an Baionan argitaratua, ez baitzen naski aise saldu.

Alta Hazpandarra naizenez badakit bazirela lehenago, Bilbo, Gernika, Tolosa, Zarauz, Iruñea, Santander, Madril edo Valenciako seme dirudunak frantsesa ikastera heldu zirenak *Colegio de Hasparren* deitu ikastetxera. Montevideoko Jose Mendiagaren familian ikusi dut oraino 1992an, aitonaren altxorrean ongi zaindua Ikastetxe horretako zuzendariak, Juvénal- Martyr Lassalletar anaia euskaltzaleak, 1899an, Lamaignère baitan, Baionan argitaratu *Vocabulaire trilingue français espagnol basque*, hiztegi hiru-eleduna.

Zorroagan irakasle nintzelarik, ordea, konturatua nintzen errazki, Hegoaldean ez zela gehiago interes handirik frantsesarentzat. Orain denetan ingelesa besterik ez da entzuten. Baina gauzak aldatzen dira batzutan: nork daki Hegoaldeko ikastetxek ez ote dioten zirrikitu bat irekitzen ahalko oraino Iparraldeko haurriden hizkuntza bati? Iparraldean ordainez gaztelaniarentzat alki bat asma daitekeen bezala.

Egun hauetan entzun berri dugu, Gasteizeko alde horretatik frantsesari ere bultzada bat eman nahi lirokeela Hezkuntza Sailak. Zergatik ez? Eta gainera, Euskal Herriaren eraikitzeaz axola dugunok atsegin har genezake, beharko diren irakasle berrien formakuntza egin ahal baledi gure eskualdean!

Horiek horrela, Xabier Kintana eta bestek egindakoaren ereduari jarraikiz, gure adiskideak euskara-gaztelaniarentzat egin zuen lan bera saiatu nintzen egiten, duela lauzpabost urte, euskara-frantsesarentzat, eta uste dut irakasle edo itzultzaile askori baliagarri izan zaiola.

Orain, hiztegegintzaren historiari buruz hitzerdi bat erran nahi nuke: badaude liburutegi zokoetan gorderik, aspaldiko euskal hiztegiak, XVII. mendetik XX.aste lo egon direnak, nahiz euskalzale batzuek aipatu eta landu ere dituzten. Gogoan dut Patri Urkizuk egin zuen *Urte* lapurtarraren argitalpena; baina gaur ditugun erraztasunekin, galdetzen diot ene buruari eta gure argitalpen batzordeari noiz arte utzi behar ditugun argitaratu gabe Sylvain Pouvreauk, Jean Duvoisinek, Maurice Harrietek edo Darricarrère kapitainak egin lanak?

Besterik ez.

*Paskual Rekalde-
-Joxemari Sestorain
Nafarroako Gobernuko itzultzaileak*

SARRERA

Euskaltzaindiak antolatu duen Biltzar hau ezin egokiagoa zaigu, laburki bada ere, gaurko hiztegegintzaren premien eta arazoen berri emateko, Nafarroako ikuspuntutik abiatuta. Argi utz dezagun ez garela inolako argitaletxe edo hiztegegileren ordezkari. Nafarroan ez da arlo orokorreko hiztegirik plazaratu. Alabaina, gero aipatuko den bezala, baditugu euskalkien eta herri-hizkeren altxorra biltzen duten hiztegiak, hitz-zerrendak, liburuak, eskuizkribuak eta abar.

Kezkak eta usteak dira, oro har, hemen agertu nahi ditugunak, azken 25 urteotako hiztegegintzak egin duen bidea, eta etorkizunean egin beharreko lana, alegia.

1. Euskal Hiztegegintza azken 25 urteotan: iritzi orokorra.

Bide luze eta oparoa egin du, zinez, euskal hiztegegintzak azken 25 urteotan. Hiztegi mota oro eduki dugu esku artean. Hiztegi orokorrak, hiztegi espezializatuak, hitz-zerrendak (administrazioetako itzultzaileek prestatutakoak)... izan dira gure lanabes. Beste horrenbeste esan dezakegu eskoletan, euskaltegietan eta hizkuntza eskoletan nafarrak euskalduntzen (edo alfabetatzen) saiatu diren irakasleez ere¹.

Ahal propioen gabeziak eta nafar agintariak laguntzarik ez emateak ez du urteotan posible egin egitasmo sendorik Nafarroan. Euskal Autonomia Erkidegoan ekointzitakoa hartu da. Kezkatuta gaude, halaber, Nafarroako euskararen ekarria eta aberastasuna behar bezala islatu gabe gelditu ote den gaur egun arte argitaratutako hiztegiengan; agian, ekialdera jotzen duten hizkeren altxorra ez da behar bezala jaso hiztegi horietan. Dena dela, akatsak akats eta gabeziak gabezia, esku artean izan ditugun lanabes horiek ezinbestekoak izan zaizkigu eguneroko lanean.

Hala ere, ez da dena antzua izan gurean. Hor ditugu nafar euskalkien eta herri-hizkeren lexikoa biltzen duten hiztegiak eta hitz-bildumak. Resurreccion M^a Azkueren eta bere laguntzaileen lanari zor diogu gehienbat nafarrok geure altxorreko hitzak gaur egungo hiztegiengan agertzea. 50 herritatik gorako hitzak bildu zituen eta,

¹ Zer esanik ez, beharra ez da bat eta bera izan *Nafarroako Aldizkari Ofiziala* edo administrazioko departamentuetako ohar eta izkribuak itzultzen aritu direnena, edo eskolan eta euskaltegietan irakasten ari izan direnena. Lehenek, jakintza arlo askotako hitz eta esamoldeak behar izan dituzte eskura —maiz horien gabezia latza sumatu bada ere—, askotan hizkera administratibo zurrun eta ulergaitzean idatzi hitz eta esapideak itzultzeko (edo itzultzen ahalegintzeko). Aldiz, bigarrenek, eta lehenek ere bai, jakina, hiztegi orokorragoak behar izan dituzte. Den-denek, ezbairik gabe, atseginez hartu izan dituzte argitaletxeek ateratako hiztegiak.

besteak beste, Bruno Etxenikeren, Lakoizketaren eta Lizarraga Elkanokoaren lanetan aurkitutakoa. Azkueren lanean agertu ez ziren makina bat hitz bildu eta argitaratu zen geroago hainbat artikulutan. Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak baliagarri zaizkigu, egun bizirik dauden hizkerak eta hilda daudenak nolakoak ziren jakiteko. Horri guztiari jarraipena emateko, baditugu denen eskura hiztegi zehatzagoak, konparazio batera, Etxarri-Aranazkoa, Baztangoa, Erronkarikoa, Zaraitzukoa....

Ezin, beraz, esan eskuak uztartuta egon direnik/garenik nafarrak. Dena dela, garbi dugu asko dugula egiteko oraindik.

2. EUSKAL HIZTEGIGINTZAREN PREMIAK EPE ERDIAN ETA LUZEAN

Orain arte lan oparoa egin bada ere, euskal hizteigintzaren premiak ugari dira. Hemendik aurrera prestatu beharreko hiztegi orokorrek (edo egundainokoen berrikusketek) euskararen aniztasuna izan behar lukete oinarri. Euskarri zabal eta aberatsa (*Orotariko Euskal Hiztegia* eta *Hiztegi Batua*), euskara batuaren arauak errespetatzeaz gain, euskalkien eta herri-hizkeren ekarpena bilduko duena, txokokeriak bazterturik, jakina. Halaber, kontuan izan beharko dira inguruko hizkuntza erromantzeen (gaztelaniaren eta frantsesaren) eta ingelesaren ekarria eta indarra. Hizkuntza horietako hitzak geureganatu beharko ditugu².

Hizteigintzaren premiak hiru multzotan banatuko genituzke:

(a) *Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)* eta *Hiztegi Batua (HB)* osatzea eta bukatzea, eta euskararen corpus zabala prestatzea, gero, ahal delarik, Euskal Hiztegi osoa egiteko.

(b) Egunero sortzen diren edo albo-hizkuntzetatik etengabe hartutako hitzen euskal ordaina eman beharko da (*chupete, biberón, móvil, monovolumen...*). Horretan ere arazo bat baino gehiago izan behar dugu, zenbaitetan kontzeptu edo objektu bera esateko bi hitz erabiltzen baitira mugaren bi aldeetan. Gure ustetan, eginkizun honek lehenetsun osoa izan behar du, inguruko hizkuntzen morroi izan nahi ez bada.

(c) Nafarroan egin beharreko lana. Ezaguna da *Hiztegi Batua* egiteko erabili diren oinarriak, nagusiki, bi izan direla: *Orotariko Euskal Hiztegia* eta *Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa (EEBS)*³. Nafarreraz idatzitako literaturaren eskasiak eta nafar euskalki edo herri-hizkera batzuen aztertze⁴ ezak berekin ekarri dute orain arteko hiztegietan Nafarroako euskararen gainean dugun informazioa urri samarra izatea. Hori ikusita, ezinbestekoa da bildu gabeko hizkeren (edo erdi-bilduta dauden) lexikoa jaso eta aztertzea. Horretarako, jakina, gizalanaz gain, euskararen aldeko jarrera behar genuke agintariengan, gobernukoetan zein herri-administrazio-koetan, egin nahi dugun lana egiteko baliabide eta laguntza ekonomikoak behar baitira. Testu idatzien gabeziaren aurrean, ahozkoitasunari eman beharko zaio garran-

2 Maiz aski beharrik gabe erabiltzen ditugu gaztelaniatik hartutako hitzak Hego Euskal Herrian eta frantsesetik hartutakoak Ipar Euskal Herrian, kontuan izan gabe beharbada badirela mugaz haraindiko eta honaindiko euskaldunendako baliagarri diren hitzak: *Autoa* erabil daiteke alde bietan, hemengo *kotxe* eta hango *oto* erabili beharrean. Hala ere, beste batzuetan aukera bikoitza egin beharrean gaude: *gasolina* hemen eta *ezantza* han.

3 Hiztegien ekarria ere *OEH*-n sarturik dago.

4 Beti ere hitzak eta esaldiak esaten diren bezala bilduta, ez, maiz gertatu den bezala, modu jasoan.

5 Ahal delarik, zentzuz eta zientifikotasunez egindako lanak behar ditugu, ez denborapasa edo militantismoz egindakoak.

tzia: jadanik bildutakoak, eskualdez eskualde bil daitezkeenak... Nafarroako Euskararen Fonotekako materialak ere aztertzeke daude⁶.

Hainbat eskualdetako euskara nafarra ez da ezagutzen. Baina, oro har, dialektologia lan sakon eta zehatzak egin dira (Leitza-Areso, Arano-Goizueta, Baztan, Ultzama, Sakana, Aezkoa...) eta beste batzuk ere bidean daude. Horien denen ekarpena kontuan hartu beharko da.

Nafarroan euskara mota bakarra ez izateak ez du Nafarroako euskararen oinarritzko corpusa egiteko lana erraztu⁷. Batetik, oinarritzko hiztegi horretaz baliatuko ginateke administrazioan eta eskoletan eta, bestetik, OEH-ri eta HB-ri orain egiten zaion baino ekarpen zabalagoa egingen litzaioke.

3. EUSKALTZAINDIAREN EGINKIZUNA HIZTEGIGINTZAN

Euskaltzaindiaren eginkizunetako bat hiztegegintza da. Horren lekuko ditugu *Orotariko Euskal Hiztegia* eta *Hiztegi Batua*. Aurrenekoa bukatuta ikusteko urte batzuk beharko dira. Bigarrenaren lehen itzulia iaz argitaratu zen; bigarren itzulia ere aztertzen ari dira. "Bi egitasmo handi horiek bukatuta, zer?" galdera egiten diogu geure buruari. Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegia* moduko zerbaiten premia dugu, OEH eta HB oinarri hartuta, euskara hutseko hiztegi moderno eta eguneratua esku artean izateko, baina etengabe sortzen diren hitz eta esamoldeak bilduko dituen. Euskararen egungo erabileraren hiztegia premiazkoa da.

Akademiak bere gain hartu behar luke zientzia eta teknika arloetako eta terminologiazko hiztegien gainbegiratzea. Adituekin batera aritu behar luke lanean, talde-lanean, jakina. Euskara batuaren arauak zuzen betetzen diren zaindu behar luke.

Laburbiltzeko, euskal hiztegegintzak bide luzea egingo dauka azken urteotan. Nafarroari dagokionez, R. M. Azkue aipatuko dugu denen oinarri. Gerora etorri dira beste hainbat hitz-sorta: M. Izeta, B. Estornes, A. Arana, J. M. Azpiroz eta beste askorenak. Hala ere, Nafarroan ez da burutu hiztegi orokorrik eta kezka dugu argitaratutakoetan hemengo euskara behar den lekuan paratu ote den. Horietaz gain, badira egitekoak oraindik ere: *Orotariko Euskal Hiztegia* eta *Hiztegi Batua* osatzea eta amaitzea, hitzak sortu eta beste hizkuntzetakoak etxekotzea eta, Nafarroan, testu idatziak urri samarrak izanik, ahozkotasunari lehentasuna ematea, ahozko hizkuntza xehero jaso eta argitaratzeari, alegia. Euskaltzaindiak badu zeresana hiztegegintzan: orain artekoak osatzea eta euskara hutsezko hiztegi moderno eta eguneratua bideratzea.

6 Nafarroako Gobernu Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak abiarazi duen egitasmoa.

7 Koldo Zuazo dialektologoaren esanei jarraituz, Nafarroan euskara ez da bat eta bera. Nafarroako euskara ez da "nafarrera" soila. Burundan mendealeko euskalkiaren, erdialdekoaren eta nafarreraren eragina dago. Sakanan nafarreraz mintzo dira, erdialdeko euskalkiaren eraginekin. Larraunen, Basaburuan eta Araitz aldean, erdialdeko euskalkia darabilte ahoan, nafarreraren eraginekin. Nafarrerak hartzen du eremurik zabalena: Atetzen eta Ultzaman nafarreraz mintzo dira; Bortzerrietan, Malerrekan, Baztanen eta Esteribar-Erroiarren nafarreraz egiten dute solas, nafar-lapurteraren eraginekin; eta, Aezkoan, nafarreraz elekatzen dira, nafar-lapurteraren eta ekialdeko nafarreraren eraginekin. Urdazubi-Zugarramurdi eta Luzaiden nafar-lapurteraz mintzo dira eta, bukatzeko, Zaraitzu aldean ekialdeko nafarrera dugu, nafar-lapurteraren eta zubereraren eraginekin.